



## **GI-20 bariantea eraldatzeko prozesu parte hartzailea: 2.fasea**

### **1. Sarrera**

GI-20ak 50 urte bete ditu aste honetan. 1972ko irailaren 12an, Aieteko tunelaren sarreran egin zen ekitaldi batean, Franco diktadoreak «Donostiako saihesbidea inauguratu zuen, Herrera eta Añorga artean, 8 kilometro, 6 tunel eta 11 zubi eta biaduktuekin».

Eraiki zenean, azpiegitura horrek soluzioa eman zien Donostiako mugikortasun-arazo askori, hiriko erdigunetik pasatzen zuten ibilgailu astunen trafikotik askatuz eta lehen kongestionatuta zeuden errepide asko baretuz.

Hala ere, bigarren ingurabidea eraiki zenetik (AP-1), trafikoa erdira jaitsi da, hiri inguratzeko bere funtzio nagusia aldatu egin da eta, hala eta guztiz ere, errepideak neurri eta espazio bera hartzen jarraitzen du.

Hala, GI-20 saihebideta eraldaketa berri baten atarian dago gaur egun. Galdera bakarra da ea nola eta noiz egingo den. Larrialdi klimatikoari aurre egitea denon lana da eta gure inguruko hiririk aurreratuenak beren autobiak, errondak edo saihebidetarako prozesuetan murgilduta daude: Donostia ezin da atzean geratu.



*Irudia 1. Egungo saihebidetaren espazioaren banaketa (ohiko sekzio osoa 60 metro inguru). StreetMix bidez egina*



*Irudia 2. Geldituko litzatekeen espazio librea saihebideta autobide izatetik hiribide izatera pasako balitz. StreetMix bidez egina.*

Testuinguru horretan, joan den urtarrilaren 29an, Donostiako EH Bilduk prozesu parte-hartzaile bat aurkeztu zuen, eraldaketa hori nola gauzatu den erabakitzeko eta libratuko diren eremuetan zer egin behar den aztertzen hasteko. Helburua da saihebidetarako zeharkatzen dituen eremuetan bizi diren bizilagunen iritziak, proposamenak eta kezkek biltzea, bai eta hiri zein auzo mailan diharduten gizarte eragileek ere.

Jakina denez, EH Bilduren konpromisoa 2023ko hasierarako GI-20 eraldatzeko proiektu zehatz bat aurkeztea da. Orain arte Intxaurren, Añorga, Egia, Loiola eta Loiolako Erriberetatik igaro da prozesua. Orain, bigarren fasean, Altza, Aiete eta Amara Berrira iritsiko da.

Herritarren erantzuna oso ona izaten ari da. Dozenaka elkarterekin jarri gara harremanetan proiektua azaltzeko: eskola-komunitatea, auzo-elkarteak, kirol-elkarteak, emakume-taldeak, gazte-taldeak... Gainera, liburuxka bat etxez etxe banatu dugu auzoetan, erakusketa ibiltari bat antolatu dugu eta hitzaldiak eta batzarrak egin ditugu. Aldi berean, EH Bildu bilera-erronda bat egiten ari da hiriko gizarte-eragile nagusiekin, eta maila guztietako ekarpenak biltzen ari da.

Eremu politikoari dagokionez, nabarmentzekoa da bariantea eraldatzeko EH Bilduren proposamenak harrera ona izan duela. Donostiako alkatetzatik zein Gipuzkoako Foru Aldunditik proposamena aztertzeko prest agertu ziren. Izan ere, hiri-proiektu bati buruz ari gara, Donostia eta Gipuzkoa unean-unean gobernatzen ari denaz harago doana, eta, beraz, adostasun zabalak behar dituen gauzatzeko. Nolanahi ere, argi dago GI-20 eraldaketa denbora kontua dela eta, orain dela 50 urte gertatu bezala, mugarri historikoa izango dela gure hiriaren bilakaeran.

## **2. Prozesuaren 1. fasearen balorazioa**

Urtarrilean proiektuaren aurkezpena egin genuenetik, GI-20 saihebidia zeharkatzen duten hainbat auzoetan egon gara proposamena azaltzen. Zehazki, Intxaurrondon, Añorgan, Egian, Erriberatan eta Loiolan egon gara.

Auzo hauetan guztietan etxetzeko banaketa egin dugu proposamenaren azalpen txiki batekin eta bertako eragileekin harreman zuzena izan dugu. Ondoren, egindako auzo bakoitzeko batzarretan, auzokideen iritzi eta zalantzak jaso ahal izan genituen.

Baina ez hori bakarrik, auzoetan egoteaz gain, Donostiako hainbat eragileekin biltzeko aukera izan dugu.

Orokorrean eragile eta auzotarrek proposamenarekiko izan duten harrera ona izan da. Haien zalantzak argitu ahal izan ditugu eta egindako ekarpenekin proposamenaren hainbat gako identifikatu ahal izan ditugu.

### **2.1. Intxaurrondo**

Intxaurrondon eragileekin lan handia egin da, 35 bat eragileengana iritsi gara proposamen honekin, batzuekin aurrez aurre eta beste batzuekin postaz. Baina, denek izan dute aukera proposamena ezagutzeko eta haien zalantzak argitzeko.

Eragileekin egoteaz gain, bizilagunekin egoteko espazioak ireki ditugu. Etxetzeko eskuorriak banatzeaz gain, kalean egon gara, eta batzar bat eta hitzaldi bat antolatu ditugu. Espazio hauetan, Intxaurrondotarrek proiektuarekiko jarrera, argibideak, gomendioak eta zalantzak plazaratu dituzte.

Intxaurrondon Marrutxipiko irteera kezka nagusia dela baieztatu ahal izan dugu.

Ondorio gisa, esan dezakegu, Intxaurrondo auzoa lotarako auzo gisa irudikatzen dela gaur egungo hiri-ereduan. Hau da, Intxaurrondon azpiegitura berriak beharko lirateke, zerbitzuetarako eta lan egiteko, hortaz, egokia litzatekeela etxebizitzak eraikitzea eta eraikin berean erabilera anitzeko guneak ezartzea lana egiteko, bulegoak, azpiegiturak eraikitzeko... honek auzoari bizitza emango liokeelarik.

Bestetik, Intxaurren ondoan apenas ez dago auzotarrentzako, komunitatea egiteko espazio publikorik. Hortaz, interesagarria litzateke ere sozializatzeko eta komunitatea egiteko guneak eraikitzea, esaterako; hiri baratzak, kirol pistak, auditorio-frontoi bat auzotarren gozamenerako.

## **2.2. Añorga**

Añorgan hainbat eragileekin izan dugu harremana proposamena helaraziz. Baina ez hori bakarrik, etxez etxeko banaketa bat egin dugu eta batzar bat antolatu dugu bizilagunen zalantzak eta iradokizunak jasotzeko.

Añorgan, zalantza zegoen bertako sarrera eta irteerarekin, eta horri erantzuna ematen saiatu gara, errotonda posible baten eraikuntzarekin. Honela, Añorga-Antigua lotura hobetzeko erabili daiteke eraldaketa.

Añorgatarrek ardura handia dute egin behar dituzten etxeekin. Baina ez etxebizitzak egin behar dituztelako, egin behar dituzten moduagatik, baizik. Beraz, jada GI-20eko espazio erabili behar bada, ez lukete gaizki ikusiko GI-20 eraldatzean liberatzen den espazioan etxebizitzak eredu zehatz bat egitea.

Bestalde, auzotarrek argi dute erabilera anitzeko eraikin bat behar dutela zerbitzuak emateko. Hala nola, mediku kontsulta, dantza, kultur-ekimenak... Hortaz, hainbat zerbitzu bilduko lituzkeen eraikina eraikitzea proposatu dute.

Ingurumen berdeari dagokionez, haiek nahikoa dutela azpimarratu dute eta ez dutela behar. Baina bai, egokia litzatekeela herri baratzak jartzea, eta ez bakarrik Añorgatarrek, baizik eta ingurukoek ere erabiltzeko.

Añorgak ere garraio publikoarekin duen lotura aprobetxatu daitekeela azpimarratu da, horrela hiriak hain beharrezkoak dituen disuasio-parking bat ezarri bertan.

## **2.3. Egia, Erribera, Loiola**

Auzo hauetan harreman zuzena izan dugu bizilagun elkarteekin eta hainbat eragileekin. Harreman hauetatik, proposamenarekiko haien iritziaz jasotzeaz gain, auzoan dituzten kezken berri izan dugu.

Hiru auzo hauetan erakusketak egin ditugu kalean, harrera oso ona izan dugu hiruetan eta bertan jaso ahal izan ditugu bizilagunek proposamenarekiko izan ditzakeen zalantzak eta ekarpenak.

Beste auzoetan egin bezala, Egian, Erriberatan eta Loiolan ere etxez etxeko eskuorrien banaketa egin dugu eta batzar irekiak antolatu ditugu bizilagunekin.

Orokorrean harrera ona jaso du proposamenak eta auzo hauei ekarpena egin ahal diela ondorioztatu da.

Nahiz eta zuzenean Gi-20 saihesbidea ez duen Egia zeharkatzen. Bertako bizilagunek, proposamen hau gauzatzearekin batera, aukera ezin hobea ikusten gune naturalak baliatzea eta egokitzea. Horretarako ibaiaren eta ingurunearen garapena egitea, proposatu dute, ibai-parkea Gladysenearuntz luzatuz eta horrela gune natural hau Gladys parkearekin lotuz.

Baina ez hori bakarrik, eta eraberritze horretan, Astiñene baserria berritzea eta inguruneak berregokitzea eta auzotarrentzat irekitzea proposatu zen. Mugikortasunari dagokionez, Polloeko tunela eta Egia arteko oinezko/bizikleta lotura zuzen bat jarri daiteke.

Erriberatan baieztatu ahal izan dugu, kezka orokortua dela GI-20 saihesbideak sortzen duen zarata eta errepidez inguraturik bizitzeaz haiengan sortzen duen kezka. Beraz, proposamena oso egoki ikusi zen, errepidea lasaitzeko, sarrera-irteerak lasaitzeko eta horrela, zarata murriztuz eta autoen kopurua inguruko errepidetan gutxituz.

Proposamenean aipatzen zen La Salle inguruko espazioa berreskuratzeak ere harrera ona izan du. Bizilagunentzako eta ikastetxearentzako espazio berri bat litzatekeelako.

Erriberatan ere, Añorgan bezala, zerbitzuen falta nabaria da. Hortaz, saihesbidea liberatuko litzatekeen espazioan, hainbat funtzio izango dituen eraikin bat egitea ezin egokiagoa ikusten dute.

Azkenik, Loiolan izan ginen eta hemen ere batzarrean jaso genituen bizilagunen ekarpen eta zalantza gehienak. Loiolan gehien bat mugikortasunari eman zioten garrantzia. Hau da, saihesbidearen bidez bizikletaz edo garraio publikoz beste auzoekin konektatzeko aukera izateari.

## **2.4. Eragile sozialak**

Guztira, otsailetik hona eragile ugariarekin izan dugu harremana, gehienak aurrez aurre. Guztira 15 bat eragileri helarazi diegu gure proposamena: Dbuseko sindikatu guztiak (Kurpil, LAB, UGT, ELA), Eguzki, ELA Donostia, Emakumeen Hiri Foroa, Gipuzkoako Erreal Moto Club, Haritzalde, Hiru euskal garraio eta garraiolarien sindikatua, Kalapie, LAB Donostia, Taxi Donostia, Taxi Vallina eta Ekialdebuseko LAB sindikatuari.

Eragile hauei guztiei gure proposamena jasotzen duen txostena eman diegu eta proposamenari egindako ekarpenak jaso ditugu.

Bilera hauen bidez ere, eragileek zituzten zalantzak argitu ditugu eta proposamenean aurreikusten ez genituen gakoak identifikatu ahal izan ditugu.

Proposamena orokorrean positiboki baloratu da, eta batez ere hiri honek mugikortasunean arazo bat duela eta egiturazko aldaketa bat behar duela adierazi dute eragile gehienek. Hortaz, proposamen honek horretan lagundu dezakeela argi geratu da.

Hainbat ikuspegi aurreikusi dira:

- Bidegorri bat egongo litzateke saihesbidearen luzera osoan zehar, bizikletari bide azkar bat emanez.
- Abiadura gutxiagoko errepidea bihurtuz gero, garraio publikoa indartu daiteke bertan eta orain arte ez zeuden lineak eta geltokiak sortu.
- Hiriak disuasio-parkingak behar dituela aipatu dute hainbat eragilek, eta eraldaketa honetan, libratzen den espazioan, parking bat baino gehiago jar daitezkeela proposatu dute. Alde horretatik, gure talde teknikoak proposatzen du gutxienez bi aparkaleku kokatzea saihesbidearen eraldaketan liberatuko diren eremuan, garraio publikoaren konexio egokiarekin. Zehazki, disuasio-aparkaleku bat Añorga aldean eta beste bat Intxaurren, Topoaren geltokiaren inguruan.
- Beharrezkoa ikusi dute, bigarren saihesbidearekiko sarrera berriak sortzea, seinalitika aldatzea, inguruko herriei irtenbideak ematea....

Bilera hauetan hiriaren hazkundeari buruz hitz egiteko aukera izan dugu. Eragileek ezin egokiago ikusi dute, berrerabilpen honetan lanerako guneak eta proiektu ekonomiko traktoreak eraikitzea. Era berean, etxebizitza eredu berriak ezartzearen ideia askotan atera da.


Beste eragile batzuek, gune naturalei eman diete garrantzia. Ezinbestekoa ikusten dute eraberritze honetan gune berdeak eta eraztun berde bat sortzea, eta noski, bertako ekosistema errespetatzea.

Nahiz eta eragile hauekin lehen bilerak egin, hartu emanak ez dira bukatu, eta hauetako batzuek urtean zehar ekarpen gehiago egiteko eta proposamena elkarrekin eraikitzeko asmoa agertu digute.

Orain arte egindako harremanaz gain, hurrengo asteetan berriro ekingo diogu harremanei. Alde batetik beste eragile batzuekin bilduko gara eta baita ere, gure proposamena helaraziko diegu gainontzeko Udal Taldeei ere.

### 3. Orain arte antzemandako beharren mapa

Lehen fasea bukatuta eta bigarrenaren atarian, parte-hartze prozesuan jasotako ekarpen nagusiak mapa honetan ikus daitezke:



1. Añorga-Antiguako sarrera-irteera biribilgune bidez
2. Hiri-jarraitasuna Añorgan: ekipamenduak eta funtzio-anitzeko eraikina
3. Herri baratzak eraztun berdearen barruan
4. Disuasio aparkalekua
5. Kristina Enea eta Astiñene artean ibai-parkea, Astiñene baserria zaharberrituz
6. Polloeko tunela eta Egia arteko oinezko/bizikleta lotura
7. Ekipamendu gehiago
8. Zarata murriztea
9. Disuasio aparkalekua
10. Lan egiteko eta funtzio-anitzeko eraikina
11. Bi Intxaurrondoan arteko oinezko/bizikleta zubiak
12. Etxebizitza formula berriak
13. Sozializatzeko eta komunitatea egiteko guneak: aretoa, auditorioa.


## 4. Eraldaketa proiektu berriak

GI-20 saihebidia aldatzeko gure proposamena aurkeztu genuenetik, urtarrilaren 29an, autobide handiak eta hiri-autobiak bulebarizatzekeo proiektu berriak agertu dira. Tamaina eta errealitate desberdinetako hiriak, kolore guztietako gobernuak dituztenak, beren hirietan ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea izan dute helburu, klima-aldaketaren aurkako borrokan eta CO<sup>2</sup> emisioak murrizten laguntzeko.

Hona hemen azken hilabetetan aurkeztutako zenbait proiektu.

### 4.1. PARIS: «Périphérique»ren eraldaketa

Parisko Udalak proiektu bat aurkeztu zuen maiatzean bere ingurabideko errepide nagusietako bat, «Périphérique» izenekoa, aldatzeko. Gaur egun, lau erreiko errepidea da norabide bakoitzean, eta egunean milioi bat ibilgailuk erabiltzen dute. Parisko Alkatetzaren helburua orain errei kopurua murriztea eta 10 hektarea inguru libratzea da, 70.000 zuhaitz landatuko lirakeelarik. Ingurabide horrek mende erdia beteko du 2023an, eta Parisko udal-gobernuaren asmoa 2030erako «gerriko berde» bihurtzea da.<sup>1</sup>



### 4.2. Bilbo: Itsasadarreko errepidearen eraldaketa (Bi-711)

Getxo, Leioa, Erandio eta Bilbo oinezkoentzako pasealekuarekin eta bizikleta-bidearekin lotuko dituen bulebar bihurtzeko lanak 2024rako amaituta egongo dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 20 milioi euro inguruko inbertsioa egin beharko du. BI-711 errepidea gaur egun 10.000 ibilgailuk erabiltzen dute. Ahalmen handiko errepidea ez izan arren, Bizkaiko Diputatu Nagusiak, Unai Rementeriak, proiektua «iraultzailea» dela esan zuen, «metropolian bizitzeko eta mugitzeko modua erabat aldatuko delako». Izan ere, Azpiegituren Foru Sailaren kalkuluen arabera, autoan mugitzen direnen herenak bulebar berriarekin aldatu egingo du mugitzeko modua.<sup>2</sup>

1 <https://www.france24.com/es/minuto-a-minuto/20220518-par%C3%ADs-quiere-convertir-su-bulevar-perif%C3%A9rico-en-un-cintur%C3%B3n-verde>

2 <https://www.eitb.eus/es/noticias/economia/detalle/8830417/imanol-pradales-diputado-de-infraestructuras-y-desarrollo-en-programa-egun-on-euskadi-de-etb1/>





### 4.3. Bartzelona: «Meridianoaren» eraldaketa

Egunero 100.000 ibilgailu eta 10.000 oinezko inguruk erabiltzen dute Meridiana hiribidea. Horregatik, errepide honen eraldaketa da inguruan bizi diren auzotarren eskaera historikoetako bat. Aldaketa 2019an hasi zen, eta, udazkena 1,7 kilometrora iritsiko da, eta 94.000 metro karratuko azalera berrituko da, 28,4 milioi euroko inbertsioarekin. Horietatik sei Europar Batasuneko Next Generation funtsetik datoz. Eraldaketak noranzko bakoitzean errei bat kentzea dakar. Meridiana berriak bi errei izango ditu alde bakoitzean trafiko orokorrarentzat eta bat busentzat eta taxientzat. Erdiko erdibitzaileak 9,5 metroko zabalera izango du, eta bi noranzkoko bidegorri bereizi bat izango du, 4,3 metrokoa, eta 2,6 metroko parterre bat alde bakoitzean, zuhaitz handien ilara batekin eta argiztapenarekin<sup>3</sup>.

### 4.4. Madril: Doctor Esquerdoren eraldaketa

Doctor Esquerdo kalearen eraldaketan ibilgailu pribatuen errei bat kenduko da noranzko bakoitzean eta zuhaitzak landatuko dira. Aurrekontu osoa 18 milioi eurokoa da<sup>4</sup>. Madrilen ere martxan da Ilustrazioaren hiribidea hiribidetik bulebarrera aldatzeko prozesua<sup>5</sup>.



### 4.5. Baix Llobregat: C-245 errepidearen eraldaketa

Errepide honek 6 udalerrri handi zehartzen ditu eta eraldaketa amaitzean dago. Helburua da errepide hori "hiriarteko korridore sozial berri" bihurtzea, mugikortasun eredu

3 <https://www.timeout.es/barcelona/es/noticias/asi-sera-la-transformacion-de-la-meridiana-de-barcelona-032822>

4 <https://www.madriario.es/doctor-esquerdo-mas-verde-peatonal-un-carril-menos-coches-aceras-mas-amplias>

5 [https://www.abc.es/espana/madrid/abci-sera-metamorfosis-avenida-ilustracion-autopista-urbana-bulevar-paseable-202204280113\\_noticia.html](https://www.abc.es/espana/madrid/abci-sera-metamorfosis-avenida-ilustracion-autopista-urbana-bulevar-paseable-202204280113_noticia.html)

jasangarria sustatuz eta 5.000 zuhaitz baino gehiago landatuz. 13 km-ko tarte da eta 39 milioi euroko aurrekontua du<sup>6</sup>.

#### **4.6. Valentzia: «Ausiàs March» autobiarene eraldaketa**

Valentziako Udalak egunean 126.000 ibilgailuk erabiltzen duten Ausiàs March autobia eraldatu eta lau erreirekin utziko du. Hau da, ibilgailu pribatuen zirkulaziorako espazioaren erdia baino gehiago kenduko da. Horrela, Valentziako Udalak planteatzen duen Ausiàs March bide berriak 37.000 metro karratuko espazioa berreskuratuko luke<sup>7</sup>.

---

6 <https://www.batlleiroig.com/es/projectes/buxbaix/>

7 <https://www.lasprovincias.es/valencia-ciudad/ayuntamiento-convertira-ausias-march-gran-via-peatonalizar-vehiculos-20210920123728-nt.html>